

PAUSOZ PAUSO, AUZOZ AUZO:

DATA: Martxoak12

ORDUTEGIA: 19:00 -21:30

PERTSONA KOPURUA: 47 pertsona (19 emakumezko/ 28 gizonezko)

Alaitz Mendizabal, Herritarren Parte-hartzea batzordeko lehendakaria:

Lasarte-Oriako herritarren parte-hartzea sustatu nahian, herriko auzoetan bilera parte-hartzaileak egitea proposatzen da. Udalak auzoen eguneroko bizitzan oinarritutako komunikaziorako espazio bat bultzatu nahiko luke.

Gaur egun egiten diren eskaerak ia beti banakakoak izaten dira. Arrazoi hori dela eta, garrantzizkoa iruditzen zaigu auzoetan bilera horiek egitea eta premia horiek denak batera jartzea.

Auzo bakoitzak ezaugarri desberdinak dituela kontuan izanda, Udalak bertatik bertara jakin nahi du auzoetako errealitateen berri. Horregatik,, bilerak auzo bakoitzean egingo dira.

Zuek zarete, herritarrok, zeuen auzoa nola dagoen hobekien dakizuenak, eta horregatik etorri gara zuzen eskutik zuzenean jakitera nola ikusten duzuen gaur egun bizi zareten ingurunea.

Bestalde, komunikaziorako bide bati ekiteko modua ere bada, udalaren eta herritarren arteko hurbiltzea oinarritzat hartuta.

Hurbiltze eta komunikazio horretan, bi aldeek hartu behar dute parte, informazioa konpartituz eta beti herriaren eta herritarren onerako izango diren adostasunetara iritsiz.

Pablo Barrio, alkatea:

Udal-gobernua Bilduk, Herritar Plataformak eta EAJk osatzen dute. Udaleko departamentuak, berriz, hauexek dira:

- Hirigintza, ingurumena, merkataritza eta sanitatea: Nerea Sanchez.
- Ogasuna eta kontuetako berezia: Estitxu Alkorta.
- Zerbitzu sozialak, immigrazioa, kooperazioa, enplegua eta emakumea: Gorka Lizarraga.
- Obrak eta zerbitzuak: Ana Prieto.
- Pertsonala eta barne-erregimena: Pablo Barrio.
- Kultura, hezkuntza eta euskara: Boris Nogales.
- Gazteria, festak eta kirolak: Taxio Arrizabalaga.
- Parte-hartzea: Alaitz Mendizabal.

Departamentuek hilero batzordeak egiten dituzte, eta bilera horietan hainbat gai jorratzen dira, udalerriko alderdi politiko guztiekin. Batzordeetako gaiak udalbatzarrera joaten dira. Udalbatzarren deialdiak hilero bigarren asteartean egiten dira. Arratsaldean izaten dira, nahi duen edozein herritarrek haietara joateko modua izan dezan. Udalbatzarrak bukatutakoan, alkateak hitz egiteko aukera ematen die bertan diren herritarrei, jorratu diren gaiari buruz aritzeko.

Hurrengo lerro hauetan aurkezten dena 2012. urtearen zirriborro ekonomiko bat da:

2012ko aurrekontuen aurreikuspena

Gastuak: 23.900.000 €

Diru-sarrerak: 23.200.000 €

Garrantzizkoa da bi puntu horien gainean hitz egitea, zeren eta kexak, proposamenak... marko politiko eta egoera ekonomiko honen barruan gauzatuko baitira.

Larraitz Sarobe, herritarren parte-hartzeko teknikaria

Prozesua bi fasetan banatuko da:

Lehenbiziko bileran, auzoko **diagnostikoa eta proposamenak** jasoko dira.

Bigarren bilera proposamenen gainean izango litzateke. Hemen, bilerako parte-hartzaileek erabakiko lukete egindako proposamenetatik zein diren lehenetsunekoak.

Bigarren eta hirugarren bileraren artean, denbora-bitarte bat utziko litzateke. Udalak eta auzoetako bizilagunek **hainbat dinamika partizipatibo jarriko lituzkete martxan, proiektuak garatzeko.**

Hirugarren bileran, Udalak eta herriko bizilagunek **garatutako proiektuak aurkeztuko lirateke.** Zein proiektu gauzatuko diren erabakitzeke erabiliko litzatekeen sistema ere aurkeztuko litzateke.

Prozesu horrekin, herritarrek beren auzoetan aurrera eramango liratekeen proiektuak baloratzeko, lehenesteko eta erabakitzeke aukera izango dute.

Lehen bilera honetan, banaka, talde txikietan eta talde handian, diagnostikoa eta proposamenak egingo dira. Horientzat, orri bat banatu da, 5 arloekin:

- KULTURA
- HIRIGINTZA
- EKONOMIA
- ONGIZATEA
- PARTE HARTZEA

Aipatzekoa da, halaber, banatutako orrien artean orri bat dagoela proposamenetarako eta beste bat ebaluazioa egiteko. Ondo legoke, diagnostikoa eta proposamenak zeuen postan jaso nahi baduzue, orri hau beharrezko datuekin betetzea. Eta bileraren bukaeran ebaluazioa betetzea ere bai.

Banaka, talde txikiak eta bateratze-lana:

Proiektuaren nondik norakoak azaldutakoan, herritar bakoitzak minutu pare bat izango ditu, gabezien eta proposamenen orrian beharrezko ikusten duena idazteko.

Bakarrik dauden bitartean, kolorezko gozokiak banatuko zaizkie. Talde txikiak egiteko erabiliko da hori.

Talde txikietan (4-5), bakoitzak jarri duena konpartitzeko aukera izango dute. Horrela, lehenago bururatu ez zitzaizkien ideiak gehitu ahalko dituzte.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde pasatuko dira, laguntzarik behar badute ere.

Dena batera jartzerakoan, ondo neurtuko da denbora, arlo bakoitzeko gabezia eta proposamen guztiak aportatzeko beta eman dezan.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarriko da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

Itxiera:

- Bigarren bileraren data gogoratzea eta proposamenei lehentasuna jartzeko izango dela esatea.
- Bilerara joan ezin izan den jendearentzat, kulturetxean postontzi bat jarriko da, proposamenak han uzteko.
- Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

ERDIGUNEA

EREMUA: HIRIGINTZA (azpiegiturak, mugikortasuna)

GABEZIA, KEZKAK, INDARGUNEAK	PROPOSAMENAK
• Iturriak jarri.	
• Umeentzako parke estaliak.	
• Bidegorria Donostiarekin lotzeko.	
• Udal atzeko esplanadan aterpeak, guner berdeak...	
• Largoenean barandailak jartzea. (anbulatorio haurrean)	
• Elbarrituentzako aparkalekuak: zeudenak kendu egin dituzte eta daudenak espazio aldetik ez dira egokiak.	
• Elbarritasunaren arabera plaza matrikularekin.	
• Txartelaren erabilera desegokia kontrolatu.	
• Plazaolako bidea Andoainekin lotu (ikerketa bat egin honen inguruan).	
• Oinezkoentzat kale gehiegi beste batzuentzat oso ondo dago.	
• Hipodromo etorbideko trafikoa erregulatzeko ikerketa bat, ibai ondoko aparkalekuetara juteko.	
• Goiegi zubiko espaloia gaizki.	
• Okendoko parking-a noizko?nola izango da?	

ERDIGUNEA

EREMUA: ONGIZATEA (gizarte-ongizatea, hiri zerbitzuak, ingurumena)

GABEZIA, KEZKAK, INDARGUNEA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none"> • Txakur lotuta eramatea eta kaken asuntua begiratzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Umeek udaletxe atzean dagoen parkeko harri zuriak ahora sartzen dituzte 	
<ul style="list-style-type: none"> • Igandeetan jubilatuetan egiten den dantzaldia plazara ateratzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Birziklatzeko kontenedoreak espaloietik urrun uzten dira eta gurpil aulkiarekin iristea ezinezkoa da. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Espaloietan motor asko ibiltzen dira. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Okendo plazan dauden etxeentzat kotxearekin barrura sartzeko aukera (ordu pare bat egunean zehar). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Okendoko zuloak tapatzeko txapak, bankuen ertzak... arriskutsuak dira, antzeko parkeko zorua puskatuta dago. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Baratz publikoak 	
<ul style="list-style-type: none"> • Igandeetan garbiketa, asko nabaritzen ez dutela garbitzen (larunbat gaueko zikinkeria). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Komun publikoak erdigunean 	
<ul style="list-style-type: none"> • Berdegune bat udaletxe atzean. Gune ezberdinekin: haurrentzat, etzanda lasai egoteko, zakurrentzat... 	
<ul style="list-style-type: none"> • Badenak oso altuak dira gurpil aulkiarekin ibiltzeko 	
<ul style="list-style-type: none"> • Lasarte- Oriako erdigunean 30km/h abiaduran ibiltzea. (bizikletarekin lasai ibiltzeko). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeentzako osasun espezifikoa begiratzeko, informatzeko... gune bat. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Atez- atekoa ez bada jartzeko, horren orde besterik ez 	

ERDIGUNEA

planteatzea (gehiago birziklatzeko aukera ematea: 5. kontenedorea, konposta egiteko ontzia...)	
• Anbulatorio zaharra zegoen espazioa aprobetxatzea	
• Pertsona helduentzat azpiegiturak gutxi eta garestiak	
• Pintore kalean eta Okendon zuhaitzen adarrak moztu.	
• Autobus publikoetako malda askotan puskatuta egoten da, (gurpil aulkiarekin ibiltzea ezinezkoa)	
• Irunera joateko zerbitzu gehiago jarri, maiztasun handiagoarekin.	
• Zaborraren kontzientziazioa eskoletatik hastea eta herri mailan ere egitea. (etxeetan birziklatzeko baliabideak ematea)	

EREMUA: EKONOMIA(garapen ekonomikoa eta komertzioa)

GABEZIA, KEZKAK, INDARGUNEAK	PROPOSAMENAK
• Herriko langabetuen poltsa bat sortu herriko lanak egiteko.	
• Herriko azokari leku egokiagoa eman. (herriko plaza edo inguruetan). Honek herriko komertzioari lagunduko dio.	
• “komercio justo” denda bat jarri.	

ERDIGUNEA

EREMUA: KULTURA (EUSKARA, HEZKUNTZA, KIROLA)

GABEZIA, KEZKAK, INDARGUNEA	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none"> • Kiroldetako garbitasuna zaindu (ongizateak begiratu). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Kirolean euskara sustatzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Eskoletako instalakuntzak arratsaldean herritarrentzat ireki daitezke? Horrela bada ireki. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegiaren ordutegia luzatu (gauetan ireki adibidez). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Kultur etxeko gela erabilera arintzea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Eskaintza profesionalak gehiago (kultura aldetik). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Kultur amaterra bultzatu. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Sorkuntza ahalbideratzeko espazioak sortu (herritarren begira beti). Herritarren arduradun 	
<ul style="list-style-type: none"> • Kultur Etxeko kultur agendak azkar bukatzen dira (kopurua begiratu). 	
<ul style="list-style-type: none"> • Kiroldetia zaharkitua eta txikia geratu da. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Elbarrientzat ez dago dena egokitua, beste herrietan bazala deskontuak egitea. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Auzolana hezkuntzatik, ikastetxeetatik, ere lantzea (bibliografia asko dago metodologia honi buruz hezkuntza mailan). 	

ERDIGUNEA

EREMUA: PARTAIDETZA(AUZOGINTZA ETA KOMUNIKAZIOA)

GABEZIA, KEZKAK, INDARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">Auzo elkarteentzat lokala.	
<ul style="list-style-type: none">Udal eta auzotarren arteko eguneroko komunikazioa, herritarrek iradokizunak egiteko bideak erraztu edo sinplifikatu.	
<ul style="list-style-type: none">Herriko produktuak saldu edo erakusteko aukera ematea.	